


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2010eko URRIA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,1 jaitsi ziren 2010eko urrian aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko urria, 2009koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %0,5 gehitu ziren

2010eko uztaillean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,1 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,5 igo zen, EUSTATEN datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(*) (*) Gehikuntza urritzako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2010eko urrian, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,2 jaitsi dira.

Urrian Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beherantzako bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Bietan %0,2ko jaitsiera aurreko hilaren aldean. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,2 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %2,5 igo.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%15,3), Metalurgia (%13,6), Energia elektrikoa eta gasa (%4,2) eta Industria kimikoa (%2,6) nabarmentzen dira. Berriz, urteko prezioetan (2010eko urria 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Ez-metalezko mineralak (%-3,5), Zurgintza (%-0,7), eta Altzarigintza (%-0,2).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2010EKO URRIA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,6	-0,1	0,5	0,4
ERAIKINAK	116,2	-0,2	0,1	0,0
OBRA ZIBILA	118,2	-0,1	2,2	1,9
LEHENGAIEN KOSTUA	115,4	-0,2	0,3	0,1
ERAIKINAK	115,0	-0,2	-0,2	-0,4
OBRA ZIBILA	117,1	-0,2	2,5	2,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	121,1	0,0	1,4	1,4

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua